

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Pediatriako ZIUren eta operazio-gelen berrantolaketari esker, adingabeek familiekin denbora gehiago igaroko dute

*Irailetik aurrera, gurasoek ZIUen bisita-ordutegi malgua izango dute eta, ebakuntzen kasuan, haiek egin aurretik adingabeen alboan egon ahalko dira*

Asteazkena, 2016.eko maiatzak 25

Datozen asteotan egingo den Nafarroako Ospitaleguneko Pediatriako kirurgia-aldearen eta ZIUren berrantolaketari esker, irailetik aurrera, ospitaleratutako adingabeek beren senideekin egoteko denbora gehiago izango dute; hala, "Ospitaleratutako Haurren Europako Gutuna"-betearaziko da.

Osasun Departamentuko kontseilari Fernando

Dominguezek Foru Gobernuari neurriei buruzko informazioa eman dio gaurko bilkuran.

Nafarroako Ospitaleguneko B eraikinean dagoen Zainketa Intentsiboen Unitatearen kasuan (ZIU), lehengo Virgen del Camino ospitalean, helduen ZIUren alboan dagoen espazio libre batera pasako da. Horrek esan nahi du azalera % 50 handituko dela eta, horrenbestez, artatutako haurrak gurasoekin eguneko 24 ordutan egon ahalko direla, gauak barne (gaur egun lau ordu baino ez ziren egoten).

Gainera, ZIU berriak osasun-langileek beren lana egin ahal izateko baldintzak hobetuko ditu: argi naturala izango du, isolamendu akustikoa eta espazio ezagatik orain eskaini ezin ziren zerbitzuak (bainugela). Lekua ez da zabalduko, ordea, eta 4 oherekin jarraituko da.

Zehazki, egungo instalazioek 61,4 m2 dute, eta haren barnean sartzen dira kontrolerako gunea eta osasun-langileentzako komuna, baina ez adingabeentzat. ZIU berriak 96,94 m2 izango du, pazienteentzako komun batekin, eta kontrol unitatetik kanpo geratuko da.

Aipatu den moduan, horri esker, pazientearen ondoan egoteko ordutegiak zabalduko dira. Orain, bisitak 12:00etatik 14:00etara egin ahalko dira eta, arratsalde, beste bi orduz, ordutegi malguarekin. Okupazio urria badago, aitona-amonak eta anai-arrebak bertan izatea uzten da.



Pediatriako ZIU berria kokatuko den espazioaren irudia.

Gaixotasun terminalen kasuan, holtz tolesgarri batekin isolatzen da, eta gurasoak haren alboan ahalik eta denbora gehien egon daitezten saiatzen.

ZIU berriak ordutegi malgua eskainiko du 24 ordutan. Ez da denbora-mugarik izango orain arte bezala, eboluzio klinikorako kaltegarria gerta daitekeen ustea dagoen egoeraren batean salbu, eta gauetan adingabeen alboan norbaitek egoteko aukera izango du.

Urtero, Pediatriako ZIU 140 kasu/urteko artatzen dira batez beste (138, 2015ean), 10 eta 15 egun arteko batez besteko egonaldiarekin. Ebakuntzengatik edo desorekatu egin diren prozesu akutu eta kronikoengatik sartzen dira unitatean (arnasketakoak, onkologikoak).

### **Ebakuntzetan pazientearen alboan egotea**

Kirurgia-aldearen kasuan, haurrei laguntzeko itxarongela bat egokituko da, eta irailetik aurrera ere erabilgarri izango da.

Itxarongela horretan 2 ohe izango dira, eta familiako pertsona bat pazientearen alboan egoten utziko du anesthesiaren aurretiko prozeduretan, operazio-gelara eraman aurretik. Aukera hori ezin da baliatu une hauetan, harrera-gela kirurgia-barrutiaren barnean baitago; beraz, mugatutako zirkulazio-espazio bat da, ospitaleko higie-neurri batzuk bete behar dira nahitaez, eta neurri horiek ezin dituzte bete lan-zirkuitutik kanpo dauden pertsonak.

Neurri horrek urtean Nafarroako Ospitalegunean operatzen diren 2.150 haurri egingo die onura, eta kirurgiako estresa eta paziente nahiz familiaren antsietatea murriztea bilatzen du; horrekin batera, banantzeak bi aldeei eragiten dien trauma murriztea.

Bi berrantolaketa horiekin, ildo horretan azken urteotan familiek egindako hainbat eskaerei erantzuten zaie. "Ospitaleratutako Haurren Europako Gutuna" ere betearazten da, Europako Parlamentuak 1986an onartua (maiatzaren 13ko A2-25/86 Ebazpena), eta azken horren arabera, haurren ondoan gurasoak ahalik eta denbora gehien izateko eskubidea dute ospitalean dauden bitartean (gurasoak edo haien ordezkakoak), eta ez ikusle pasibo modura, ospitaleko bizitzako elementu aktibo modura baizik. Eskubide horren egikaritzeak ez dio inolaz ere eragingo pazienteak jaso beharreko tratamenduen aplikazioari.



Lokalen beste ikuspegi bat.